

IKASGAIAREN izena 1.8. Web eta multimedia diseinua	Kreditoak 6 ECTS
Behin-behineko iraupena eta kokapena ikasketa-plangintzan Lehen MAILA eta bigarren SEIHILEKOA	
Ikasleak ikasgai honekin eskuratzen dituen gaitasunak eta emaitzak	
Gaitasun orokorrak: <ul style="list-style-type: none"> ○ Talde-lana Helburu komunak lortzera bideratutako lanetan beste batzuekin batera aritu, ekintzak modu koordinatuan planifikatuz, informazioa trukatzuz, erantzukizunak nor bere gain hartuz, eta gertatzen diren gatazka eta arazoei aurre eginez. ○ Ikasten ikasi Aurretiaz eskuratutako ezagutzak eta estrategiak aplikatu, ikaskuntza berriak sortzeko, prozedura eta testuinguru egokienez hausnartzuz, sortzen diren egoera guztietan ezagutza eskuratu, garatu, eta beste egoera batzuetara transferitzeko. 	
Gaitasun espezifikoak:	
<u>-Ezagupenak:</u>	
Ikus-entzunezkoen produkzio eta zabalkunderako teknika eta prozesuen ezagutza eta aplikazioa bere fase guztietan, teknika-baliabideak, giza baliaabideak eta aurrekontu-baliabideak euskarri guztietan (zinema, telebista, bideoa, multimedia, etab.) antolatzeko eta kudeatzeko ikuspegitik hasita, komertzializatoraino.	
Ikus-entzunezkoen sorkuntza eta zabalkunde tekniken eta prozesuen ezagutza eta aplikazioa bere fase guztietan (zineman, telebistan, bideoan eta multimedian), hasierako ideiatik azken emaitzaraino eszenaratzearen ikuspuntutik.	
Ikus-entzunezko hedabideetara aplikatutako teknologien ezagutza teoriko-praktikoa eta aplikazioa (argazkia, irratia, soinua, telebista, bideoa, zinema eta multimedia euskarriak).	
<u>-Trebetasunak:</u>	
2.5. Argazki-produkzioa antolatzeko teknikak eta prozesuak erabiltzeko gaitasuna, bai eta irudi finakoaren alorreko sorkuntza-teknikak eta sorkuntza-prozesuak erabiltzeko ere, hala ingurune analogikoetan nola digitaletan.	
2.6. Multimedia ekoizpenaren eta material interaktiboaren eraikuntzaren fase desberdinen antolaketa eta sorkuntzarako teknikak eta prozesuak erabiltzeko gaitasuna.	
2.16. Diseinu grafikoaren eta multimedia eta hipermedia produktuen alorreko fase desberdinetan sorkuntza eta zabalkunde teknikak eta prozesuak aplikatzeko gaitasuna, ikuspuntu teoriko eta praktikoa batetik begiraturik.	
2.19. Edozein eratako ikus-entzunezko dokumentuak datu-base batean bilatzeko, hautatzeko eta sistematizatzeko eta bitarteko digitalen bidez haiek ikus-entzunezko euskarri desberdinetan erabiltzeko gaitasuna.	
2.20. Enpresa jakin baten ikusi-identitate korporatiborako araubide baten sorreran ikusi-identitatearen printzipioak eta funtzioak aplikatzeko gaitasuna.	
Ikasgaiaren ekarpena profil profesionalari	
Ikasgai honek "Ikus-entzunezko zuzendari, gidoilari eta errealizadore" profilerako zein "ikus-eta soinu-produkzioaren eta posprodukzioaren diseinua" eta "edozein euskarri motako informazio kudeatzailea eta erredaktorea" profiletarako behar diren ezagutza eta gaitasunak eskaintzen dizkio ikasleari.	
Irakaskuntza-ikaskuntza metodologia, eta beronek ikasleak eskuratu beharreko gaitasunekin duen harremana.	
<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kasu eta adibide praktikoen oinarritutako ikaskuntza. Kasu eta adibide horien bitartez ikasleak konponbidea eman beharko die planteatutako arazoei. ✓ Proiektuetan oinarritutako ikaskuntza. Ikasle bakoitzak edukien kudeaketarako eta irudi korporatiboko proiektu bat egingo du web plataforman multimedia elementuekin. 	
Prestakuntza jarduerak	

Jarduera presentzialak (%40):

- ✓ Eskola magistralak eta teorikoak.
- ✓ Praktiak.
- ✓ Kasuak eta arazoak aztertzeko tailerrak.
- ✓ Kasu eta arazoen analisira zuzendutako tutoretza akademikoak.
- ✓ Proiektua.
- ✓ Praktiken, Tailerren eta Proiektuaren bidez, modu praktikoan landuko dira honakoak:
 - Interfazeen diseinua.
 - Web edukien kudeaketa.
 - Diseinu-tresnak (Eyetracking, Balidatzaileak, Koloreen kudeaketa, etab.).
 - Produkzio-tresnak (Broken links, Cross-Browser, etab.).

Jarduera ez-presentzialak (%60):

- ✓ Ikasketa eta lan autonomia.
- ✓ Kasu eta arazoen taldekako azterketa.
- ✓ Taldekako lan praktikoak.
- ✓ Proiektuaren faseen errealizazio-lanak.

Gaitasunak eskuratzeko ebaluazio-sistema

Ebaluazioak honako erreferente hauek hartuko ditu kontuan:

a) Alderdi espezifiko-teknikoen ebaluazioa (ezagutza diziplinarrak, gaitasun profesional eta akademikoak):

- ✓ Egindako praktiken ebaluazioa.
- ✓ Banakako eta taldekako lanen ebaluazioa.
- ✓ Proiektuaren ebaluazioa.

b) Zeharkako gaitasunen ebaluazioa (gaitasun akademikoak eta bestelakoak):

- ✓ Zereginen jarraipena eta kontrola.
- ✓ Autoebaluazioa.
- ✓ Koebaluazioa lan-taldean.

Edukien laburpena

- Web diseinuaren oinarriko printzipioak.
- Web edukien kudeaketa.
 - Web lekuen informazioaren antolaketa.
- Erabilerraztasuna.
 - Erabilerraztasun-estandarrak.
 - Erabilerraztasun-teknikak.
 - Balidatzaileak.
- Usagarritasuna.
 - Nabigazioa.
 - Erabiltzaile-formularioak eta erabiltzaile-interfazeak.
 - Web gunea zenbait gailutan.
- Multimedia.
- Bilatzaileak.
- Publizitatea.